

B e u s k a r a r e n BERRIPAPERERA

Euskararen leiho berriak zabalik

Aurten ere euskarak zabaldu egingo dizkio bere leihoak informatikaren eraberritzeari. Izan ere, orain hiru urte urratutako bideari jarraiki, 1998.aren amaiera aldera erosi izango baitira *Microsoft-Windows 98* sistema eragilearen eta *Microsoft Office*-ren euskarazko bertsiok. Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioek eta Microsoft Korporazioak sinatu berria dute software produktu berri

Microsoft-Windows 98 sistema eragilearekin batera —*Internet Explorer 4.0*. nabigatzailea barne—, *Microsoft Office*-ren baitako *Word 9.x* idazprograma, *Excel 9.x* kalkulu-orria eta *Outlook 9.x* agenda izango dira, hain justu, euskaratuko diren produktuak, euskarazko zuzentzaile ortografikoa ere barne izango duena. Microsoft arduratuko da euskarazko produktuak zabaldu eta saltzeaz. Horretarako, ordenadore fabrikatzaileekin

Tresneria informatikoaren zabalkundearen ondotik, informatika ohiko lanabes dugu lan-munduan, irakaskuntzan, aisialdian edota eguneroko bizimoduan. Gero eta nabaria den garrantziaz jabeturik, eta euskararen erabilera izan dezakeen eragina kontuan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek elkarri hartu diote euskal herritarrok oinarritzko softwarea euskaraz ere izan dezagun, eta, ildo beretik, euskarak berak ere tokia izan



✓ **Julia McLauchlan**, Microsoft Korporazioko Lokalizazioetarako zuzendari nagusia, **Juan Jose Ibarretxe**, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea, eta **Mari Carmen Garmendia**, Kultura sailburua hitzarmena sinatzen.

horiek euskaratzea bideratuko duen hitzarmena. Hitzarmen honek garrantzi nabarmena izango du euskararen erabilera sustatzeko, eta, gauzatze aldera, 313 milioi pta. erabiliko dira. Diru kopuru hori bi urtetan banatuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek ordainduko dute (% 65: Eusko Jaurlaritzak; % 5,25: Arabako Foru Aldundiak; % 17,5: Bizkaiko Foru Aldundiak eta % 11: Gipuzkoako Foru Aldundiak).

eta informatika alorreko zabalzaile handizkariekin jarriko da harremanetan, hartara euskarazko sistema eragilea fabriketan bertan ezartzeko eta denda-zirkuituetan euskarazko produktuak salgai jarri ahal izateko. Microsoft-ek berak egingo du euskarazko produktuen publizitatea. Hitzarmen honi esker, munduko beste 31 hizkuntzatan bezalaxe, euskaraz egongo dira arestian aipatutako programa informatikoak.

dezan teknologia berrien munduan. Eusko Jaurlaritzak prestatzen ari den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotako hamazortzi jardueraren alor estrategikoetako bat, informazio-teknologia berriei dagokiena da, eta, besteak beste, oinarritzko softwarea eta sistema eragileak euskaraz izateko premiaz ohartarazten du. Hari beretik, euskararen erabilera normalizatzeko aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakun-

deek konpromisoa hartu dute euskararen presentzia areagotzeko teknologia alor berri hauetan.

Produktuak euskaratzeko garaian, *Windows* sistema eragilea eta *Microsoft*-eko ofimatika produktuak hautatu dira, hauek baitira informatikaren eremuan usuen erabiltzen direnak, bai administrazioaren esparruan, bai gizarte ekimenari lotutako alor gehienetan. Hori horrela, produktu horiek tresna egokiak dira euskara informatikaren unibertsoan ohiko hizkuntza bihurtzeko. 1995ean sartu zen lehen aldiz euskara sistema eragileen eta ofimatikaren munduan. Urte hartan EJEK (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte), Jaurlaritzako Kultura Sailak eta *Microsoft* enpresak hitzarmena sinatu zuten *Microsoft-Windows 95* eta *Word 6.0* idazprograma euskaratzeko. Azken honi, gainera, *Xuxen* euskarazko zuzentzailea ezarri zitzaion. Hitzarmen horren bitartez, eta UZEIK eta Elhuyarrek egindako lana zela medio, produktu horiek euskaraz plazaratu ziren.


S U M A R I O A

- 1 Euskararen leiho berriak zabalik
- 2 Laburrak
Jose Antonio Loidi
Bizkarrondo
Agenda
- 3 Eremu urriko hizkuntzak, ikaskuntza eta elebitasuna
Lanaren kalitatea areagotzeko Udako barnetegiak 1998
- 4 Pertsonaiak
Lehen begiratuan

LABURRAK*El libro negro del euskera*

Azken 300 urteotan euskararen aurka ezarri diren lege, erabaki, ohitura eta testuak bildu ditu Joan Mari Torrealdai idazle eta soziologoak *El libro negro del euskera* izenburu duen lanean. Egilearen esanetan, "Amnesiaren aurkako antidotoa izan nahi du, iragana ahaztea arriskutsua izan daitekeelako. Hori barik, batek pentsa lezake euskararen egoera baztertua zerbait naturala dela". Testu laburrez osatuta dago liburua, denak jatorrizko hizkuntzan, bai gaztelaniaz bai frantsesez. Hitzaurrean ematen du Torrealdai horren arrazoa: "... Euskaraz irakurtzen jakin gabe bere burua kultuzat daukaten horiek euskaldunen aurka zer esan den eta zer egin den jakin dezaten nahi dut. Eta hori lortu nahi dudalako idatzi dut erdaraz liburu hau. Premiari handiena, gainera, beraiena da".

Testuaz gainera, idatzi zireneko urtea, egilea eta testuinguru politiko, sozial edota kulturalari buruzko daturik ere ematen du.

**Euskal Ikasketak Estatu Batuetan mintzagai**

Datorren uztailaren 6tik 9ra bitartean Euskal Ikasgai buruzko Nazioarteko Biltzarra egingo da Renon, EEBBetako Nevada Estatuan hain zuzen. Bertan, datorren milurtekoari begira, euskal kulturaren eta euskaltasunaren inguruko hausnarketa egingo dute mundu osoko 70 unibertsitateko irakasleek. Biltzar hau Nevadako Unibertsitateko *Basque Studies Programmek* antolatuta du, eta koordinatzailea William A. Douglass izango da. Hasierako asmoa euskal emigratioaren inguruko hausnarketa egitea bazen ere, irakasleek azaldutako jakinmina ikusirik, gogoeta zabaldu eta, bidenabar, euskal gizarteak eta euskal diasporak etorkizunean inguruko dituzten aldaketan inguruko gogoeta sakona ere egitea erabaki zen.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo

Beste bederatzik lagunekin batera, ohorezko euskaltzain izendatu zuten apirilaren 25ean Jose Antonio Loidi Bizkarrondo. Erreterian jaio zen 1916. urtean, Farmazia-ikasketak egin ondoren, botikari hasi zen Irunen. Hainbat farmazi elkarte sortu eta zuzendu ditu Jose Antonio Loidik. Farmazia eta Hidrologiako ikerketa ugari egin eta argitaratu du, baita Farmaziaren inguruko hitzaldietan eta mintegietan parte hartu ere. Bestetik, UZEIko Biologiako hiztegiko izendegirako hainbat datu eskaini zituen. Literatur lanari dagokionez, azpimarragarriena hauxe litzateke: euskaraz idatzitako lehen polizi

nobela berea izatea, *Amabost egun Urgan'en* izenburuko. 1955. urtean idatzi zuen liburu hau, eta geroztik hainbat argitalpen izan ditu. Irungo ikastolaren sortzaile, Eusko Ikaskuntzaren diruzain, Euskal Idazleen Elkarte baskide, eta *Zeruko Argia, Jakin, Habe* eta beste hainbat literatur eta zientzi aldizkarietako kolaboratzaile izan da. Bestalde, literatur eta zientzi lehiaketetako epaimahaikide ere izana da. Ohorezko izendapena aurtengo apirilean jaso badu ere, 1957.az geroztik euskaltzain urgazle genuen.



Euskaltzaindiaren ohorezko izendapen berbera jaso dute honako beste lagun hauek ere: Jesus Atxa, Julene Berrojalbiz, Karnele Esnal, Marie Jeanne Minaberri, Jaime Kerexeta, Xabier Gereño, Karmelo Etxenagusia, Eugenio Agirretxe eta William Douglass-ek.

AGENDA**UEUren Udako Ikastaroak**

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatuta, XXVI. Udako ikastaroak izango dira aurten Miarrizten (uztailak 6-11) eta Iruñean (uztailak 20-31). Artea eta komunikazioa, giza eta gizarte-zientziak eta zientziak izango dira antolatutako ikastaroen ardatz. Hauen berri, eta matrikulazioari buruz argibiderik nahi duenak, UEUren bulegoetara jo dezake, honako helbideetara: Bilbo (tel: 944217145 / 944214679) Baiona (07 33 - 559256056)

e-posta: ueu@eusnet.org

Irun Hiria Literatur Sariak

Literatur sorkuntza eta zabalkuntza sustatzeko asmoz, Kutxa Fundazioak Irungo Udalarekin batera, XXIX. Irun Hiria Literatur Sariak deitu ditu. Euskarazko nahiz gaztelaniazko lanak aurkez daitezke. Idazlanak aurkezteko epea 1998ko uztailaren itxiko da, eta Kutxa Fundazioaren Donostiako bulegoetara bidali beharko dira: "Irun Hiria Literatur Sariak 1998, Garibai, 20. 20004 Donostia"

Miarrizteko olerki txapelketa

Miarrizte Kultur Elkarteak euskaraz idatzitako olerki hobereana saritzen du 1000 libera eskainiz. Parte hartzeko azken eguna uztailaren 15a da, eta araei buruzko informazioa hurrengo helbide honetan ematen da: "Jeux Floraux du Pays Basque - Olerki Txapelketa" Mme Renée Giraudeau- 28 bis rue des Cinq Cantons - 64600 Anglet/Anglet.

★ **Ahoz aho, belaunez belaur ... hil honetan non?**

Muskizen, ekainaren 1etik 8ra

Eremu urriko hizkuntzak, ikaskuntza eta elebitasuna

Eremu urriko hizkuntzei buruzko ikastaro bi izango dira Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan. Lehen ikastaroa uztailaren 9tik 11 bitartean izango da, eta *Kode Bereizketa eta Nahasketa Eremu Urriko Hizkuntzarekiko Elebitasun Goiztiarrean* du izenburu. Ikastaro honek eremu urriko hizkuntzak beste hizkuntza nagusien aldamenean egonik, halakoetan izan ohi den hizkuntz jabekuntza elebidun goiztiarraren berri emango du. Horretarako, euskara-gaztelera, irlandera-ingelesa, gaelikoa-ingelesa, frantsesa-bretoiara bikoteei erreparatuko zaie. Bi hizkuntzen aldi bereko jabekuntzari buruzko ikerketak azalduko dira, baita eskola elebidunari buruzkoak ere. Ikastaroa Europako Batzordean eremu urriko hizkuntzez arduratzen den XXII. Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzaz egingo da, eta Andoni Barreña eta María José Ezeizabarrena izango dira zuzendari. Bigarren ikastaroak, uztailaren 14tik 17ra bitartekoak, eta *Hizkuntza*

Minorizatuena Irakaskuntza Helduentzako: Berrikuntza Kurrikularra du izenburu. Ikastaldi honen helburua hizkuntz irakaskuntzarekin zerikusia duten guztien eztabaidagune izatea da. Honako gai eta arloak jorratuko dira: European, erabilera urriko hizkuntzen irakaskuntzan kurrikuluaren eguneratzea; irakaslea trebatzeko programen eta ikasmaterialen egitekoa; arrakasta, porrota, gabeziak, zailtasunak eta erronkak. Ahalik eta ikuspegiarik zabalena lortu nahi delarik, ez da bazter utziko hizkuntza zabalduen irakaskuntza. Ikastaldia HABEK bultzatzen du, eta xede gisa ere badu Europako Batasunean diharduten profesionalen arteko lankidetzaren sustatzea eta etorkizunerako harreman-bideak urratzea. Miren Azkarate eta Joanba Bergara dira ikastaroaren zuzendariak. Azkenik, ikastaro hauen hizkuntz ofizialak euskara eta ingelesa izango dira, bat-bateko itzulpenarekin.


Lanaren kalitatea areagotzeko

Kalitate Osoaren kontzeptuaren baitan, enpresek nahiz erakundeek beren jarduera zein zereginak ahalik eta hobekien, arinen eta merkeen burutzearen ideia datza. Kalitate osoaren esparruan erabili ohi diren kontzeptu eta terminoen artean, badira batzuk oso maiz erabiltzen direnak, eta, horrenbestez, bateratu beharrekoak. Horren ildotik, Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioak Kalitate Osoan gehien erabiltzen diren terminoen bilketa eta adostasun-proiektua garatu du. Proiektuan Euskal Herriko Ikastolen Konfederakuntzak, Elgoibarko Gestio Eskolak, HABEK, Kurrikulu Garapenerako Institutuak, eta Lauro Ikastolak hartu dute parte. Baita beste eremu batzuetako pertsona zein talde jakin batzuek ere. Horren emaitza, Kalitate Osoan euskaraz gehien erabiltzen diren 60 terminoko zerrenda izan da, bakoitzaren definizioa barne. Zerrendak, hizkuntza erraz erabiltzeko parada emango die Kalitate Osoaren arloan dihardutenei. Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioak dauka zerrenda, kontsulta egin nahi duen ororen eskura, helbide honetan: "Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad (Ana Trapote) Zamudioko Parke Teknologikoa tel: 944209855 e-mail: fvcalidad@sarenet.es"

Udako barnetegiak 1998

Uztaila, abuztua edo irailean euskara ikasi nahi duenarentzat hona hemen barnetegiak eta hauen antolatzaileak:


- 1 **Lazkao** (Maizpide)
- 2 **Zornotza** (Aurten bai)
- 3 **Leitza** (Ilazki)
- 4 **Muxika** (Bilbo Zaharra)
- 5 **Arantzazu-Oñati** (Ulibarri)
- 6 **Artea** (Uztarri)
- 7 **Zerain** (Gipuzkoako Udal Euskaltegiak)
- 8 **Bakaiku** (Gabriel Aresti)
- 9 **Derio** (Labayru)
- 10 **Sara** (Altza, Monpas, Kuluxka, Urumea)
- 11 **Doneztebe, Leitza, Lesaka, Etxalar, Arbona** (IKA)



- 12 **Urepele** (AEK)
- Xuberoa** (AEK)
- Aia, Alegia, Azpeitia, Elgeta, Oiartzun, Zaldibia, Zestoa** (AEK)
- Foru, Arantzaz, Aulesti, Ondarru** (AEK)
- Lizartza** (AEK)

Ur Apalategi

Arg. Lutxi Fourcade



Bernardo Atxaga idazlearen obra osoari buruz egin duen tesia aurkeztu eta gero, *Cum laude* kalifikazioa jaso du orain gutxi Baionako Unibertsitateko Euskal Ikasketen departamentuaren eskutik. Patri Urkizu, Xarles Bidegain eta Ana Toledo izan ziren epaimahaikide. Frantsesez idatzitako 700 orrialdeko tesian, Baionan bizi


den gazte honek idazle asteasuarraren obra eta pertsona sakon jorratu ditu. Atxagaren pertsonaia marginalen sufrimenduaren gainean eraiki du tesia Ur Apalategik, bere esanetan mina baita Atxagak irakurlea hunkitzeko erabiltzen duen estrategia.

Juan San Martin

Argitaratu berri duen *Euskararen ostarreak* lana aitzakia hartuta, Juan San Martin idazlea (Eibar, 1922) dugu hizpide. Aldizkarietako kolaboratzaile izan da gaztetatik, eta makina bat artikulu idatzi du euskaraz nahiz gaztelaniaz. Etnografia, historia, artea, hizkuntza eta literaturari buruzko lan asko idatzi ditu. Hala ere, aipamen berezia merezi dute *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965) lanek, gertaera, ateraldi eta istorio ugari bilduz, euskaldunen umore bizia eta ironikoa agertzen dutenak.

Itzulpenak ere egin ditu; M. Ghelderode, S. Esprú eta B. Brecht-en lanak euskaratu ditu. Gaztelaniaz ere lan mardula egin du; berea da, esaterako, *Escritores euskéricos, catálogo bibliográfico de más de 400 escritores euskéricos en vascuence*, (1968). Etnologia- eta ikerketa-lanak egin ditu, baita sari ugari jaso ere. 1989-94 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoa izan zen. 1957.az gozotik euskaltzain urgazle izan da, eta 1964an euskaltzain oso egin zuten. 1996az gero EIZIEko ohorezko kide da.

Arg. Ander Gillenea



Lehen begiratuan

Maiatzaren erditik aurrera salgai jarriko da haur eta gazteentzako euskarazko bideo sorta berri bat. *Bostak* laguntaldearen abenturak, *Andersen harrigarria* film klasikoa, *Anna-Anna*-ren fantasia mundua edota *Beatrix Potter*-en marrazki bizidun xarmangarriak izango dira, besteak beste, plazaratuko diren bideo berriak. Guraso nahiz gazteek erosgai izango dituzte EAE eta Nafarroako saltoki handi gehienetan, baita liburu-denda nagusietan ere. Alokairuan hartzeko aukerarik ere izango da inguruko bideoklub gehienetan.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

